

Apirila Maiatza Ekaina



ONTZIAK

261 Kg

BIRZIKLAPENA

Aurreko hiruhilekoan jasotako ia kantitate bera jaso da oraingo hiruhilekoan. Gauzak horrela, urteko lehen erdian, 517,5 kg. jaso dira eraikineko edukiontzia horietan.



PAPERA

64.000 orri

KONTSUMOA

Urteko bigarren hiruhilekoan 64.000 orri kontsumitu dira Dekanotza, Idazkaritza eta Atezaintzan. Aurreko urteko epe berarekin konparatuz, kontsumoa murriztea lortu da, guztira 16.500 orri gutxia-go erabili direlarik.

2.320 kg

BIRZIKLAPENA

Lehen seiuhileko honetan 5.200 kg. paper birziklatu dira fakultatean, aurreko urtekoan baino gehiago, non 4.500 kg. birziklatu ziren urteko lehenengo sei hilabeteetan.

DAGOENKO 20 KG TAPOI JASO DITUGU FAKULTATEAN



Apirilean plastikozko tapoiak biltzeko edukiontzia bete egin zen. Edukiontzia aurreko abenduan ipini zen Fakultateko sarreran, erabilitako boligrafo erabilien edukiontzia alboan. Hortaz, erabilera handia izan du edukiontzia honek eta dagoeneko bigaren betealditik gertu dago.

Jasotako tapoi guztiak **BIZITZA BERRI BATERAKO TAPOIAK** proiektura zuzenduta daude. Proiektuaren bidez, bildutako plastikozko tapoiak birziklatzearen ondorioz lortutako etekin guztiak osasun arazo larriak dituzten umeei laguntzera bideratzen dira.

Orain arte, proiektuaren bitartez 13 umeri laguntza eskaini ahal izan da eta 1.077.000€ biltzea lortu dira. Gainera 5.000 tona metriko tapoi birziklatu dira. Ekintza honen bitartez, behar duten umeak laguntzeaz gain, ingurumenari mesede egiten zaio. Hortaz, badakizu, gorde etxean daukazun erabilitako tapoi guztiak eta Fakultateko sarreran dagoen edukiontzira bota itzazu!



UPV/EHUK ERLEEN DESAGERPENA IKERTZEN DABIL

Erleen desagerpenak domino-efektu globala izan dezake gizakiarengan: erlerik gabe polinizaziorik ez dagoenez, ez da landarerik izango; landarerik gabe, flora horretaz elikatzen diren animalia espezieak desagertuko dira; gero, animalia horretaz elikatzen diren animaliak desagertuko dira, eta, animaliarik gabe, azken kate-begia desagertuko litzateke.

Erleen populazioa arrazoi askorengatik ari da gutxitzen, eta laboreei botatzen dizkiegun pestizida eta herbizidak, patogenoak –adibidez, barroa akaroa– eta harrapariak –Asiako liztorra– dira erlearen arazo nagusiak.

UPV/EHU UPV/EHU zenbait ikerketa egiten ari da erleen populazioaren gainbeherari aurre egiteko. Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saileko irakasle Andone Estonba da erleen iraupenarekin lotutako proiektue-tako ikertzaile-burua.

Proiektu horien artean aurkitzen da **SmartBees**, horren bitartez erleen ezaugarriak hobetu dira, onenak aukeratuta, eta aukeratutako intsektu horien bigarren belaunaldia sortu da jada. Beehope proiektuarekin, aldiz, Erleen iraupena lortu nahi da, baina gizakiak ia esku hartu gabe. Bi ekimen horien bidez, gure ekosiste-man ezinbestekoak diren intsektu horien desagerpena geldiarazi nahi da.

Iturria: <https://www.ehu.eus/eU/-/erleen-desagerpenak-domino-efektu-globala-izan-dezake>

ETA... ZER EGIN DEZAKET NIK UDAN?

Orain uda garaian gaudela, hona hemen duela zenbait urte buletin honetan emandako zenbait aholku:




01.

Hobe da haizagailua erabiltzea, aire girotua erabiltzea baino, tenperatura 3-5° C murrizteko; izan ere, askoz ere elektrizitate gutxiago kontsumitzen du. Haizagailu bat nahikoa izan daiteke hainbat kasutan erosotasun onargarria mantentzeko.




02.

Aire girotua dela eta, ez jaitsi termostatoa 20° C-tik; izan ere, hortik beherako gradu bakoitzak % 8 areagotzen du kontsumo elektrikoa. Onena tenperatura 24° C eta 26° C artean mantentzea da



03.

Kokatu aire girotua/haizagailua eguzkiak gutxien ematen duen lekuan. Bero handiko egunetan, piztu ekipoa zure etxea berotu baino lehen, eta ez ireki leihoak



04.

Klimatizazio beharrianak murrizteko, instalatu olanak eta pertsianak, eta eduki jaitzita egunez




05.

Kontsumitu produktu freskoak eta tokikoak, frutak eta barazkiak. Txorrotaren azpian garbitu beharrean, garbi itzazu ontzi batean: egunean hamar litro ur aurreztu ahal dituzu



06.

Saihestu bainuontzia, eta dutxa hartu: horrela, egunean 60 litro ur galtzea saihestuko duzu.



07.

Urtean argi gehien duten egunak dira: baliatu eguneko argia



08.

Deskonektatu telebista eta kargatzekoak. Tresna horiek erabiltzen ez direnean duten "kontsumo fantasma" etxeko elektrizitatearen kontsumoaren % 10 izan daiteke



09.

Izan hozkailua 4° C eta 6° C artean, eta izozkailua -18° C eta -15° C artean. Utzi jatekoak hozten hozkailuan sartu baino lehen

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.berdea@ehu.es